

MAIATZA
MAYO
14
ASTEAZKENA
MIÉRCOLES



Hirukide

¿Sois Familia Numerosa y vivís en OION o alrededor?

SI QUERÉIS CONOCER...

- Vuestros derechos como familia numerosa.
- Las ventajas como familias socias de Hirukide.
- Todos nuestros servicios y actividades.

PUNTO DE INFORMACIÓN

9:30 - 14:00

15:00 - 18:00

En el ayuntamiento a la mañana.

Archivo municipal del ayuntamiento viejo a la tarde

ZUEN ZAIN EGONGO GARA!



PARA ATENCIÓN
PREFERENTE SOLICITA
CITA PREVIA

Antolatzailea
Organizador



Laguntzailean
Colaboran



Hirukideren aurkezpena: OION

Asteazkena, maiatzaren 14

Hirukidek OIONko familia ugariei dei egiten die, elkarteren lanaren berri emateko, dituen laguntza eta deskontuak aurkezteko eta haien beharrak ezagutzeko

Maiatzaren 14an, asteazkenean, Hirukide Euskadiko Kide Ugariko Familien Federazioa OION izango da, bertako eta inguruko udalerrietako familia ugariei arreta zuzena emateko. Hitzordua **09:30tik 14:00ra eta 15:00tik 18:00ra** izango da **goizean udaletxean eta arratsaldean udal zaharreko udal artxiboan**.

[Formulario hau](#) betez gero, hitzordua hartu ahal izango duzue eta lehentasuna izango duzue arreta jasotzeko orduan. Ez da beharrezkoa aurretiko hitzordua hartzea, hurbiltzen zareten familia guztiei emango dizuguelako arreta, baina aurretiko hitzordua itxaroten ez egoteko balioko du.

Jardunaldi osoan zehar, honako hau azalduko zaie gerturatzen diren familiei: erakundearen zerbitzu eta jardueri buruz, familia ugarientzat Euskadin dauden eskubide, laguntza eta hobari publikoen informazio zehatza eta familiek dituzten zalantza, iradokizun eta erreklamazioei erantzun zuzena.

Gai nagusiak:

- Familia ugaria izateagatik dauden eskubideak.
- Laguntzei/hobariei, baimenei eta abarri buruzko zalantzak argitzea.
- Seme-alabak hazteko eta mantentzeko laguntza berriari buruzko berrikuntzak.
- Familien Lege Berriaren aurreproiektuari buruzko informazioa.
- Zein laguntza/deskontu daude Oionen?
- Udalerrri honetako eta/edo gertuko familia ugarien egoera eta premiak.
- Federazioaren lana.
- Familien ekarpenak.

Azken urteko berritasunak familia ugarientzat

Azken hilabeteotan eta urteetan kolektibo honi zuzenduta izan diren berritasunak azalduko dira, familia ugari askok ez baitituzte ezagutzen. Besteak beste, hauek nabarmentzen dira:

Argiaren Bonu Soziala eta Bonu Sozial termikoa

Seme-alabak hazteko eta mantentzeko laguntza berriak.

Kide ugariko familia izaeraren hedapena

2015ean indarrean sartu zen kide ugariko familia izaeraren legezko hedapena, eta, beraz, familiek titulu hori izaten jarraituko dute seme edo alaba gazteenak legeak ezarritako adina bete arte.

Hirukide, 1999tik

Hirukide elkarte apolitiko eta akonfesionala da, **Eusko Jaurlaritzak 2003. urtean Onura Publikoko Elkarte gisa aitortua**, bizitza politiko, instituzional, sozial, mediatiko eta enpresarialeko esparru guztietan kide ugariko familien eskubideen alde egiteko helburua duena.

Kide ugariko **8.300 familiak baino gehiagok** (43.000 bazkide inguruk) osatzen dute, eta bazkide izateko baldintza bakarrak dira Kide Ugariko Familia Titulua edukitzea edo eduki izana eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea. Egun, titulua indarrean duten familien % 25 baino gehiago Hirukideren baitan daude.

Aurten 25. Urteurrena ospatuko du eta ekitaldi bereziak egingo ditu urtean zehar.

Informazio gehiago:

hirukide@hirukide.com

945 25 36 02 / 688 72 89 31